

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko errolda

Egin delarik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko errolda, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten egokituz jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

Halaber, jakinarazten da ezen otsailaren 1etik martxoaren 30era arte, egun biak barne, bo-rondatezko epean ordaintzeko moduan egongo direla trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko erroldako ordainagiriak.

Ordainagiriak helbideratuta dauzkatenei 2019ko otsailaren 8an kobratuko zaizkie.

Zerga horrek eragindako zergadunek ordainketa helbideratuta ez badute, Kanpezuko Udalak Santikurutze Kanpezuko banketxeetan dituen kontuetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga-zorrak, aipatutako epean, aurrez ordainagiriak jasota udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, indarrean dagoen zergabilketako arautegi orokorraren arabera, eta ordaindu ez diren kuotak ehuneko 20ko erre-karguarekin kobratuko dira.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Santikurutze Kanpezu, 2018ko abenduaren 26a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO